

**2024KO URTARRILAREN 30EAN EGINDAKO  
OHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA**

**BERTARATUAK**

**Alkate-Lehendakaria**

Gorka Murua Macuso

**Zinegotziak**

**BERTARATUAK**

Olaia Nieto Legarra  
Mikel Iturbe Saizar  
Noelia Lataburu Ortiz  
Gorka Sagarna Larrañaga  
Ana Jesus Leunda Gurrutxaga  
Begoña Tolosa Mendia  
Idoia Garayalde Goicoechea

**EZ BERTARATUAK**

Ioritz Lazcano Aranalde

**Idazkaria:** Irantzu Arrizabalaga Gainza.

Arratsaldeko 19:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Iruran, 2024ko urtarrilaren 30ean arratsaldeko 19:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Irurako Udaleko OHIKO Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bilera, publikoari irekia izango da, eta edozein herritarrek bere eskura izango ditu bileraren akta eta audio grabazio argitaratu ondoren eskuratzeko.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Gorka Murua Macuso izan da Batzarburua.

Udalbatza audio sistema bidez grabatua izan da, grabaziotik ateratako fitxategi bat dago, idazkariak idatzitako aktarekin batera joango dena.

**1.- AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA:**

\*2023-06-17ko bilkurako aktaren onespena. **Aho batez onartu da.**

\*2023-07-26ko bilkurako aktaren onespena. **Aho batez onartu da.**

\*2023-11-28ko bilkurako aktaren onespena. **Aho batez onartu da.**

\*2023-12-05eko bilkurako aktaren onespena. EAJko bozeramaileak aktarekiko desadostasuna adierazi du eta Idazkariak berrikusiko duela adiera du, beraz akta ez da onartu.

**2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2023KO AZAROAREN 22TIK 2024KO URTARRILAREN 25ERA (2023/298 - 2024/32).**

Alkatezak 2023ko azaroaren 22tik 2024ko urtarrilaren 25era bitartean (2023/298 - 2024/32) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

**3.-ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA FINANTZATZEKO GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA IRURAKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA LUZATZEA ONARTZEKO PROPOSAMENA.**

Alkateak hartzen du hitza eta adierazi du Gipuzkoako Foru Aldundiak hitzarmenaren urte natural bateko luzapenaren adostasuna bidali duela sinatzeko eta 2024ko abenduaren 31a bitarteko iraupena izango duela. Hitzarmenak honela dio:

**ERANSKINA, ETXEZ ETXEKO  
LAGUNTZA ZERBITZUA  
FINANTZATZEKO GIPUZKOAKO  
FORU ALDUNDIAREN ETA XXXXKO  
UDALAREN ARTEKO HITZARMENA  
LUZATZEKOA.**

**ADENDA DE PRÓRROGA DEL  
CONVENIO DE COLABORACION  
ENTRE LA DIPUTACIÓN FORAL DE  
GIPUZKOA Y EL AYUNTAMIENTO DE  
XXXX PARA LA FINANCIACIÓN DEL  
SERVICIO DE AYUDA A DOMICILIO**

Sinadura elektronikoaren tokian eta egunean.

En el lugar y fecha de la firma electrónica.

**ELKARTU DIRA**

Alde batetik,

MAITE PEÑA LÓPEZ Gipuzkoako Foru  
Aldundiko Zainketetako eta Gizarte  
Politiketako foru diputatua eta Aldundiaren  
ordezkaria, Diputatuen Kontseiluak 2023ko  
\_\_\_\_ren \_\_ (a)n egindako bileran hartutako

**REUNIDOS**

De una parte,

Doña. MAITE PEÑA LÓPEZ en calidad de  
Diputada Foral del Departamento de  
Cuidados y Políticas Sociales de la  
Diputación Foral de Gipuzkoa y en su  
representación, expresamente autorizado para

erabakiaren bidez ekitaldi honetarako  
berariaz baimenduta.

Eta bestetik,

.....,  
.....Udaleko.....eta ..... ordezkaría,  
2023ko.....ren .....ko Osoko Bilkurak  
hartutako erabakiaren bidez ekitaldi  
honetarako berariaz baimenduta.

### **AZALTZEN DUTE**

**I.-** Aldeek..... (e) ko..... aren.... (e)  
(a) n sinatu zuten Gipuzkoako Foru  
Aldundiaren eta xxx (e) ko Udalaren  
arteko lankidetzaz-hitzarmena, etxez  
etxeko ..... laguntza-zerbitzua  
finantzatzeko.

**II.-** Hitzarmenaren hamalagarren  
klausulak hitzarmenaren indarraldia  
ezartzen du, eta honako hau adierazten du:

“Hitzarmen hau sinatzen den egunean  
jarriko da indarrean, eta ondorio  
ekonomikoak izango ditu, 2021eko  
urriaren 1etik aurrera, eta 2023ko  
abenduaren 31ra arte iraungo du.  
Hitzarmen hau berariaz luzatu ahal izango  
da, amaitzen denean, urte natural bateko  
aldietan, betiere luzatutako ekitaldirako  
aurrekontu-zuzkidura egokia eta nahikoa  
badago.

Hitzarmenaren eta luzapenen  
gehieneko iraupena lau urtekoa izango  
da, salbu eta epe luzeagoa  
aurreikusten bada arau bidez.

Hala ere, hitzarmena sinatzen duten  
alderdiek aho batez eta aurreko  
paragrafoan aurreikusitako epea amaitu  
baino lehen adostu ahal izango dute

este acto por acuerdo del Consejo de

Gobierno Foral de ..... de  
2023.

Y de otra parte,

....., en calidad de ..... del  
Ayuntamiento de .... y en su representación,  
expresamente autorizado para este acto por  
acuerdo Plenario Municipal de .... de.... de  
2023.

### **EXPONEN**

**I.-** Que las partes firmaron el .... de  
..... de ..... el convenio de  
colaboración entre la Diputación Foral de  
Gipuzkoa y el Ayuntamiento de xxx  
para la financiación del servicio de  
ayuda a domicilio.

**II.-** Que la cláusula decimocuarta del  
convenio establece la vigencia del mismo, y  
señala que:

“El presente convenio entrará en vigor el día  
de su firma, surtiendo efectos económicos  
desde el 1 de octubre de 2021 y su vigencia  
se extenderá hasta el 31 de diciembre de  
2023. Este convenio podrá ser prorrogado de  
forma expresa a su finalización por períodos  
de 1 año natural, siempre que exista  
consignación presupuestaria adecuada y  
suficiente.

La duración máxima del convenio y sus  
prórrogas no podrá ser superior a cuatro años  
salvo que normativamente se prevea un plazo  
superior.

No obstante, las partes firmantes del  
convenio podrán acordar unánimemente y  
antes de la finalización del plazo previsto en  
el apartado anterior, su prórroga por un

hitzarmena luzatzea, beste lau urtez gehienez, edo hitzarmena azkentzea”.

Aurrekoa oinarri hartuta, bi alderdiek adostu dute eranskin hau formalizatzea, honako klausula hauen arabera:

## **KLAUSULAK**

### **LEHEN. – Helburua.**

Hitzarmenaren indarraldia urte natural batez luzatzea erabaki da, 2024ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra.

### **BIGAREN.- Hitzarmenaren gainerako zatiek irautea.**

Dokumentu honetan aurreikusi ez den guztian, hitzarmenaren gainerako klausula eta xedapen guztiek indarrean eta aplikagarri jarraituko dute, eta horiek ere aplikatuko dira dokumentu honi beharrezkoa zaion guztian.

Eta aurreko guztiarekin ados daudela erakusteko, dokumentu hau elektronikoki sinatzen dute, sinadura elektronikoaren tokian eta egunean.

IRURAKO UDALA

GORKA MURUA MACUSO

periodo de hasta cuatro años adicionales o su extinción”.

Con base en lo anterior, ambas partes han convenido la formalización de la presente Adenda de acuerdo con las siguientes

## **CLÁUSULAS**

### **PRIMERA.- Objeto.**

Se acuerda prorrogar en un año natural el periodo de vigencia del Convenio, desde el 1 de enero hasta el 31 de diciembre de 2024.

### **SEGUNDA.- Subsistencia del resto del convenio.**

En todo lo no previsto en el presente documento seguirán plenamente vigentes y aplicables todas las demás cláusulas y disposiciones del convenio, siendo las mismas igualmente de aplicación en cuanto fuere necesario al presente documento.

Y en prueba de conformidad con cuanto antecede, se firma electrónicamente el presente documento, en el lugar y fecha de la firma electrónica.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

MAITE PEÑA LÓPEZ

**BOZKETA.- ALDEKO BOZKAK 5 (Eh Bildu) eta 3 (EAJ/PNV).  
PROPOSAMENA AHOBATEZ ONARTU DA.**

**4.- UDAL ZERBITZUETAKO BRIGADAKO LANGILEEN DEDIKAZIO BEREZIKO LANALDI LUZATUA (%10) ONARTZEKO PROPOSAMENA.**

Alkateak hartzen du hitza eta adierazi du, ia badela denbora bat brigadako langileekin soldataren lanaldi luzatuaren negoziaketa egiten ari direla. Eta azkeneko ogasun batzordean gaia tratatu zela behin-betikoz. Brigadako langileekin adostasuna lortu denez, orain arteko lanaldi kanpoko orduak 2024.urtean regularizatuko direla.

**PROPOSAMENA**

**LEHENENGOA.-** Negoziazio mahaiarekin adostutako proposamena onartzea.

**BIGARRENGOA.-** Lanaldi bereziko tartea ezartzea erabakitzen bada:

-% 10eko lanaldi luzatua ezartzea, hau da urtean 93 ordu gehiagoko lanaldia.

- Brigadako lanpostu guztiei ezartzea, hau da, brigada burua, bi ofizial eta peoiari.

**HIRUGARRENGOA.-** Lanpostuen erlazioa eta plantilla aldatzea.

**LAUGARRENA.-** aurrekontuaren aldaketa proposamena hala badagokio, horretarako diruzaintzako kreditu gehigarriak erabili beharko direlarik.

**BOSGARRENA.-** Saileko buruak urtero aurkeztu beharko du egin beharreko lanen proposamena:

1. Urteko ekintzak planifikatu: Urtarrila: errege kabalgata, olentzeroren etorrera, Herri krosa, artisau eguna eta san migelak.  
Egiten dituztenez gain beste batzuk txertatu, zuhaitzen poda, elikagaien bankura joan - etorriak (funtzioen barruan dago eta ez da egiten), atzeratutako lanak...
2. Gainontzeko langileekin, Urteko egutegia egin astelehenetik-ostiralera (sartutako orduak extra bezala konputatu) eta larunbat eta jai egunak, baino denera 1592 ordu urtean.
3. Udalhitz art.73-74: 1592 + 93 ordu (%10 lanaldi luzatu modalidadea: dedikazio bereziko tar- teko berariazko osagarria).

**SEIGARRENA.-** 2023ko brigadako aparteko orduen konpentsazioaren proposamena onartzea.

**ZAZPIGARRENA.-** Gipuzkoako Aldizkari ofizialean argitaratzea eta Kontuhartzaileatza sailari berri ematea.

**BOZKETA.- ALDEKO BOZKAK 5 (Eh Bildu), 3 (EAJ/PNV).  
PROPOSAMENA AHOBATEZ ONARTU DA.**

**5.-KONTU-HARTZAILEAREN TXOSTENAK:**

- **2023. URTEKO 4 HIRUHILABETEKO BERANKORTASUN TXOSTENAREN BERRI EMAN.**
- **2023. 4 HIRUHILABETEKO URTEKO EXEKUZIO TXOSTENAREN BERRI EMAN.**

Idazkariak txostenen inguruko informazioa eman du eta adierazi du OBBE 1,73 egunekoa dela.

**ZINEGOTZIAK JAKINAREN GAINEAN GERATU DIRA.**

## **6.- GALDE-ERREGUAK.**

EAJko Gorka Sagarna bozeramaileak hartu du hitza eta adierazi du Abenduaren 27an Hezkuntza sailburuarekin izan zuten Ikastolen egoeraren inguruko bileraren ondoren ea beste informaziorik izan den galdetu dio Alkateari.

Alkateak erantzun du Lorena Ikastorlako zuzendariarekin hitz egin zuela eta bilera horretan hitzegindakoak azaldu zizkiola. Eta hitz egin genuena izan zen Herriak baduela, Iruratik kanpora jaten diren ikasle horien egoera aldatzeko eta bertaratzeko.

Jarraitu du esanaz, bai hitz egin zutela, Udalak nahi duela herritartasunaren inguruan partehartze prozesu bat sustatu eta horretarako diagnostiko bat egin, eta Emun enpresaren laguntzarekin Iruratarren herrigintza sustatzeko partehartze prozesua egingo dela.

Eta horri lotuta, prozesu horretan herritarrei ongi komunikatzea garrantzitsua izango denez, esan zitzaizen prozesua hasi haurretik komunikazio empresa berria lanean hasi arte.

Udaleko komunikazioa kudeatzeko enpresa bat azpikontratu da, Mundumira eta Udaleko informazioa ikustaraztea dela helburua, azpimarratu du Alkateak.

Hau guztiataz hitz egin zuela Ikastolako Zuzendariarekin eta gaineratu du Alkatea bera, bileran, pixkat arrituta geratu zela, Ikastolari ustez zegokion diru kopurua ez zegokiola azaldu zutenean. Loreanari, bilera horretan ikasgelako kopuruen ratioetan ez dela aldaketarik aurreikusten ere esan zitzaiera adierazi ziola.

Halaber, Ostatua eta Udalaren obrak direla eta, adierazi du, amaitzear daudela eta irekiera ekitaldirako gonbidapena helaraziko diela zinegotziei.

**Alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 19:15etan eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.**